



EBAZPENA, 2023ko urriaren 6koa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, zeinaren bidez onartzen baita Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozesuetan programazio didaktikoa eta/edo unitate didaktikoa/ikaskuntza-egoera epearen barruan ez entregatzeagatik baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoetan sartzeko aukera ematen da, oposizio-lehiaketa bidez, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta aipatutako kidegoetan sartzeko eta horra iristeko, oposizio-lehiaketa arruntaren bidez.

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez (2022ko abenduaren 28ko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozesuetarako deialdia egiten da, oposizio-lehiaketa bidez, aldi baterako enplegua egonkortzeko, bai eta kidego adierazleetan sartzeko eta horra iristeko ere, ohiko oposizio-lehiaketaren bidez.

Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2023ko maiatzaren 18ko Ebazpenaren 2. eta 3. ataletan xedatutakoaren arabera (ebazpen horren bidez, aipatutako hautaketa-prozesuetako oposizio-faseko eskabideak eta gainerako agiriak aurkezteko epeak eta proben datak zehazten dira), 2023ko irailaren 18tik 29ra bitartean txanda irekian eta desgaitasunentzako txandan onartutako izangaiek, bai eta baztertuta daudenek ere, baldin eta gora jotzeko errekurtsoa jarri bazuten onartutako eta baztertutako behin betiko zerrendaren aurka (ebazpenaren zain), programazio didaktikoa (ohiko oposizio-lehiaketaren kasuan) eta unitate didaktikoa/ikaskuntza-egoera (egonkortze-oposizio-lehiaketaren kasuan) entregatu behar izan zituzten.

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren 6.1.2 oinarriaren hamargarren lerrokadaren eta 7.1.2 oinarriaren hamabosgarren lerrokadaren arabera, ezarritako epean entregatzen ez dituzten pertsonak prozesutik kanpo geratuko dira, eta dagokion prozesuan jarraitzeko eskubidea galduko dute.

Programazio didaktikoa eta/edo unitate didaktikoa/ikaskuntza-egoera, kasuaren arabera, ezarritako epean aurkeztu ez duten izangaiek daudela egiaztatuta,

EBAZTEN DUT

1– Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez deitutako aldi baterako enplegua egonkortzeko oposizio-lehiaketaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozesuan unitate didaktikoa/ikaskuntza-egoera epe barruan ez aurkezteagatik baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda onartzea.

2- Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez deitutako oposizio-lehiaketa arruntaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozesuan programazio didaktikoa epe barruan ez emateagatik baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda onartzea.

3- Ebazpen hau eta behin-behineko zerrendak, interesdunei jakinarazteko, Hezkuntza Sailaren Interneteko helbide hauetan argitaratuko dira:



- [https://hezigunea.euskadi.eus/\(sartu «Erabiltzailea» eta «Pasahitza»\) – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «2022ko EPE. Irakasleak. Egonkortzeko oposizio-lehiaketa» edo «2022ko EPE. Irakasleak. Oposizio-lehiaketa arrunta», kasuaren arabera – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» \(aukeratu kidegoa eta espezialitatea\) – «Emaizak» – «Unitate didaktikoa/ikaskuntza-egoera: baztertuak» edo. «Programazio didaktikoa: baztertuak», kasuaren arabera.](https://hezigunea.euskadi.eus/(sartu%20«Erabiltzailea»%20eta%20«Pasahitza»))
- <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-saila/>(«EPE 2022. Irakasleak. Egonkortzeko oposizio-lehiaketa» edo «2022ko EPE. Irakasleak. Lehiaketa-oposizio arrunta», kasuaren arabera – «Oposizio-fasea»

4- Ebazpen honen aurka erreklamazioa aurkeztu ahal izango da, bost egun balioduneko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

- [https://hezigunea.euskadi.eus/\(sartu «Erabiltzailea» eta «Pasahitza»\) – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «2022ko EPE. Irakasleak. Egonkortzeko oposizio-lehiaketa» edo «2022ko EPE. Irakasleak. Oposizio-lehiaketa arrunta», kasuaren arabera – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» \(aukeratu kidegoa eta espezialitatea\) – «Emaizak» – «Erreklamazioak: UD/Ikaskuntza-egoera ez aurkezteagatik: baztertuak» edo «Erreklamazioak: PD ez aurkezteagatik::baztertuak», kasuaren arabera.](https://hezigunea.euskadi.eus/(sartu%20«Erabiltzailea»%20eta%20«Pasahitza»))

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriaren 6a

Langileriaren Kudeaketa zuzendaria,
BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO.